

MOZIOA:

EH Bilduk “Gizarte zerbitzuen Euskal Sistema, arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzea” izenez aurkeztutako mozioa dela eta, EAJ-PNV eta PSE.EE alderdi politikoek adierazpen hau aurkezten dugu:

1. Tolosako Udalak berretsi egiten du Gizarte Zerbitzuen izaera publikoa, 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoa, jasotzen duen bezala. Eta Gizarte Zerbitzu horiek hobetzen eta sendotzen lan egiteko konpromisoa hartzen du, gure Gizarte Babeseko Euskal Sistemaren funtsezko pieza gisa.
2. Tolosako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan EAeko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren lehen ebaluazioa partekatu eta azter dezala. Lehen ebaluazio horrek bigarren plana bideratzeko oinarritzko dokumentua izan behar du.
3. Tolosako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio EAeko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa egin dezala.
4. Tolosako Udalak uste du, Gizarte Zerbitzuen Legean jasotakoari eta honi buruzko Dekretuan garatutakoari jarraiki, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa modu mugatuan erabili behar dela, orokortu gabe.
5. Tolosako Udalak euskal erakunde guztiei eskatzen die lan egin dezatela gizarte-zerbitzuen garapena eta mantentzea bermatzeko finantzaketa nahikoa eta iraunkorra izango duen eredu adostu batean.

Tolosa, 2021eko urtarrilaren 27an

Joseba Ormazabal Lopez



EAJ-PNV

Jose M.^a Villanueva Telleria



PSE-PSOE